



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2009IPLE0001

**Eguna:** 2009-01-29

**Ordua:** 12:00 – 12:55

**Tokia:** Areto nagusia

#### Bertaratuak

- Juan Joxe Uranga Mendiburu	EA
- Imanol Lizarralde Marín	EA
- Eloy Bazan Bazan	EA
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ/PNV
- M <sup>a</sup> Jesús Arruabarrena Izagirre	EAJ/PNV
- Jesús Fontal García	EAJ/PNV
- Carlos de la Peña Hornés	EB-B
- David Franco Chavale	EB-B
- Jose Angel Sanchez Gallardo	PSE-EE
- Jose Manuel Herzog de Bustos	PP

#### Bertaratu ez direnak

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	EA
-----------------------------------	----

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa
-----------------------

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N <sup>o</sup>	ORDEN DEL DIA
2008ko abenduaren 15eko eta 19ko akten onarpena	1	Aprobación de las actas de 15 y 19 de diciembre de 2.008
Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Zozketa informatikoa	2	Sorteo informático elecciones al Parlamento Vasco
Ergobiako urbanizazio obren 2. fasea. Esleipena	3	Adjudicación urbanización 2ª fase de Ergobia
Toki Inbertsiorako Estatu Funtsa. Erabakia berretsi	4	Ratificación acuerdo sobre el Fondo Estatal de Inversión Local
GOBERNU ORGANUEN KONTROLA		CONTROL ORGANOS DE GOBIERNO
Eginiko Dekretuen jakinarazpena	5	Dación y cuenta de los Decretos realizados



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

<b>Mozioa. Donostia-San Sebastián 2.016. urtean kulturaren Europako hiriburua izateko hautagaitza</b>	<b>6</b>	Moción. Candidatura de Donostia-San Sebastián capital europea de la cultura 2.016
<b>Informazio, galdera-erreguak</b>	<b>7</b>	Información, ruegos y preguntas

### Esan-eginak eta erabakiak

#### 1. 2008ko abenduaren 15eko eta 19ko akten onarpena

Abenduaren 15eko bileraren akta aho batez onartu da.  
Abenduaren 19ko aktaren 4. puntua zehaztu da, Carlos de la Peña aldeko botoa eta Jose Manuel Herzog zinegotziaren abstentzioa jaso behar direlako bertan eta ondoren, akta aho batez onartu da.

#### 2. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Zozketa informatikoa

Zozketa informatikoa egin da eta haren emaitza hauteskunde-espeditari gehitu zaio eta Zonako Hauteskunde Batzordeari jakinaraziko zaio.

#### 3. Ergobiako urbanizazio obren 2. fasea. Esleipena

Alkate andreak Kontratazio Mahaia urtarilaren 26an eginiko esleipen-proposamena aurkeztu du eta bertan honako hau proposatzen da:

LEHENA.- Ergobiako bigarren fasearen behin-behineko esleipena URBANIZACIONES IRUÑA, S.A. eta CONSTRUCCIONES DONOSTIA, S.A. enpresek osaturiko Aldi Baterako Enpresen

#### 1. Aprobación de las actas de 15 y 19 de diciembre de 2.008

Se aprueba el acta de 15 de diciembre por unanimidad.  
Con la matización al punto 4 del acta de fecha 19 de diciembre en la que debe recogerse el voto favorable de Carlos de la Peña y la abstención del concejal Jose Manuel Herzog, se aprueba el acta por unanimidad.

#### 2. Sorteo informático elecciones al Parlamento Vasco

Se desarrolla el sorteo informático cuyo resultado queda incorporado al expediente de elecciones y que se notificará a la Junta Electoral de Zona.

#### 3. Adjudicación urbanización 2ª fase de Ergobia

La Alcadesa presenta la propuesta de adjudicación formulada por la Mesa de Contratación de fecha 26 de enero en la que se propone:

PRIMERA – Proponer la adjudicación provisional de la realización de la segunda fase de Ergobia a la UTE formada por las empresas URBANIZACIONES IRUÑA, S.A. y CONSTRUCCIONES DONOSTIA, S.A. ya que es la propuesta que mayor



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Elkarteari esleitzea, lehiaketa honetan puntuación ha obtenido en el presente punturik gehien lortu duen proposamena concurso, al obtener 70 puntos. delako, hain zuzen ere, 70 puntu.

**BIGARRENA.-** Proposatutako eskaintzak % 20ko jaitsiera gainditzen duenez, aipaturiko enpresak % 5eko berme osagarria aurkeztu beharko du, egikaritzapen-obra bermatzeko, hau da, 21.885,40 euro eta aldi berean, behin betiko bermea aurkeztu beharko du, guztia kontratua sinatu aurretik.

Idazkari-kontuhartzaileak jakinarazi du esleipen-proposamena behin betiko bihurtuko dela esleipenari alegazioak egiteko (egin ez direnak edo kasuak kasu ebazten direnak) 15 eguneko epea amaitzen denean.

Alkate andreak eskatuta proposamena bozkatu eta onartu egin da, honako emaitza honekin:

Aldeko botoak: 8 (EA 3, EAJ/PNV 3, PP 1, PSE-EE 1)  
Abstentzioa: EB-Bk 2.

PSE-EEko zinegotziak adierazi du esleitutako obra oso garrantzitsua dela Udalarentzat eta proiektuari egindako jaitsierak ikusita, obren egikaritzarekiko kontrol-maila handitu egin beharko dela krisialdian.

Carlos de la Peña zinegotziak Plegua onartzerakoan adierazi zuen gehiegi balioesten zela eskaintza ekonomikoa eta PSE-EEko zinegotzia adierazitakoarekin ados dago.

Obra Batzordearen presidentek hartu du hitza eta adierazi du lehiaketan punturik gehien lortu dituen, jaitsiera handiena egin duen eta finkaturik

SEGUNDA - Como quiera que la baja ofertada en su propuesta es superior al 20% deberá presentar una garantía complementaria de 21.885,40 euros por correcta ejecución de obra, independientemente de la garantía definitiva establecida en el pliego. Todas ellas deberán presentarse con carácter previo a la firma del contrato.

El Secretario-Interventor informa que la propuesta de adjudicación devendrá en definitiva una vez agotado el plazo de 15 días para formular alegaciones a la adjudicación no se realicen o se resuelvan en su caso.

La alcaldesa somete a votación la propuesta que es aprobada con el siguiente resultado:

Votos a favor: 8(3EA, 3EAJ/PNV, 1PP, 1PSE-EE)  
Abstención: 2 EB-B.

Interviene el concejal del PSE-EE señalando que la obra adjudicada es muy importante para el Ayuntamiento y que en época de crisis habrá de aumentarse el nivel de control en la ejecución de la obra a la vista de las bajas realizadas al proyecto.

El concejal Carlos de la Peña ya manifestó en la aprobación del Pliego que se valoraba excesivamente la oferta económica y está de acuerdo en los términos expresados por el concejal del PSE-EE.

Interviene el Presidente de la Comisión de Obras quien señala que se ha adjudicado a la empresa que mayor puntuación ha sacado en el concurso y



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

dauden kalitate-egiaztapenak dituen enpresari esleitu zaiola obra. Horretaz gain, enpresa horren egikaritzaren planifikazio-maila frogatuta geratu dira urbanizazioaren lehen fasea oso modu egokian egin duelako eta, beraz, orain 2. fasearen lehen zatia egikarituko du.

que ha hecho la mayor baja y tiene las acreditaciones de calidad fijadas y además su nivel de ejecución y planificación ya la hemos probado dado que la primera fase de la urbanización la ha realizado esta empresa y de modo muy satisfactorio, de modo que ahora ejecutarán la primera parte de la 2ª fase.

#### 4. Toki Inbertsiorako Estatu Funtsa Erabakia berretsi

Toki Inbertsiorako Funtzari dagokionez Tokiko Gobernu Batzordeak urtarrilaren 19an hartutako erabakia berretsi daitezen alkate andreak aurkeztu egin ditu eta bertan honako hauek proposatzen dira:

1.- Herri administraziorako Ministeritzak, Toki inbertsiorako Funtzari lotutako dirulaguntzaren kargura honako proiektuak onartzea:

#### 4. Ratificación acuerdo sobre el Fondo Estatal de Inversión Local

La Alcaldesa presenta para su ratificación los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local de fecha 19 de enero en relación al Fondo de Inversión Local en la que se propone:

1.- Solicitar las ayudas planteadas dentro del Fondo de Inversión Local del Ministerio de Administraciones Públicas de los siguientes proyectos:

PROYECTO / PROIEKTUA	PRECIO / PREZIOA
MEJORA ERREKATXO KALEA / ERREKATXO KALEAREN HOBEKUNTZA	246.187,76 €
URBANIZACIÓN FORU ENPARANTZA / FORU ENPARANTZAREN URBANIZAZIOA	354.948,49 €
REFORMA SOTANO FRONTON / FRONTOIKO SOTOAREN BERRIKUNTZA	175.134,75 €
TOTAL / GUZTIZKOA	776.271,00 €

2.- Toki Inbertsiorako Funtzari egikaritzeko dagokion kreditu-aldaketen espedientea aldatzea.

2.- Proceder a la modificación del expediente correspondiente de modificación de créditos para ejecución del Fondo de Inversión Local.

3.- Zarkumendegiko Futbol-zelairaren argiztapenerako inbertsio-proiektua eta

3.- Aprobar la realización de la inversión para la iluminación del



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Toki Inbertsiorako Funttsaren inguruko proiektuetan kanpoan geratu diren atalak 2009. urtean zehar aurrera eramateko aukera onartzea, dagokion kreditu-aldaketa abian jarriz.

Campo de Futbol de Zarkumendegi y de los apartados excluidos de los proyectos solicitados al Ministerio de Administraciones Públicas durante el año 2009, procediendo a la correspondiente modificación de créditos.

Alkate andreak eskatuta proposamena bozkatu egin da eta onartu, honako emaitza honekin:

La alcaldesa somete a votación la propuesta que es aprobada con el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 10 (EA 3, EAJ/PNV 3, EB-B 2, PP 1, PSE-EE 1)

Votos a favor: 10 (3EA, 3EAJ/PNV, 2 EB-B, 1PP, 1PSE-EE)

Eztabaida sortu da proiektu horiek eta horien erreferentzia Ogasun Batzordeko eztabaidan sartzeari buruz eta zehaztu da gaurko Osoko Bilkuran aurkeztu eta berretsitako proiektuak Batzordean hartutako erabakiekin uztartzen direla.

Se suscita un debate entorno a la inclusión de estos proyectos y su referencia en el debate de la Comisión de Hacienda quedando explicitado que los proyectos presentados y ratificados por el Pleno de hoy son conformes con los criterios acordados en la Comisión.

Ogasun Batzordeko presidentek adierazi du PSE-EEK prentsan argitaratutako komunikazioa guztiz okerra dela, Udal honek Toki Inbertsiorako Funtserako proiektuak aurkeztu dituelako.

El presidente de la Comisión de Hacienda indica que la comunicación publicada en prensa por el PSE-EE es rigurosamente incorrecta dado que este Ayuntamiento si ha presentado proyectos para el Fondo de Inversión Local.

### **5. Eginiko Dekretuen jakinarazpena**

### **5. Dación y cuenta de los Decretos realizados**

Udalbatzako kideei jakinarazten zaie, Udaleko hainbat betearazte-organok 1071. zenbakitik 1251. zenbakira bitarteko Dekretuak eman dituztela, eta horiek Idazkaritzako Departamentuan daudela zinegotzietan ikus dezaten.

Se da cuenta a los miembros de la Corporación Municipal que los distintos órganos ejecutivos de este Ayuntamiento han emitido los Decretos que van del número 1071 al 1251, que se encuentran a disposición de los Concejales en el Departamento de Secretaría.

### **6. Mozioa. Donostia 2016. urtean kulturaren Europako hiriburua**

### **6. Moción. Candidatura de Donostia-San Sebastián capital**



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### izateko hautagaitza

“Donostiak eta Donostiako herritarrek 2016. urteari begira erronka handinahi bat jarri dute abian eta urte horretako kulturaren Europako hiriburua izatea lortu nahi dute.

Astigarragako PSE-EEK (PSOE) uste du hautagaitza hori behar adina eta irmoki oinarrituta dagoela Donostiak erakutsi duen kultura-tradizioan, mentalitate europeistan eta antolaketa-gaitasunean. Horregatik, Donostiaren izendapenak, erakusleho ezin hobea izan behar du Europari erakusteko alde batetik Donostiaren historia, garapena eta kultura-bizitza eta bestalde, kulturatik eta tolerantziatik hezteko eta indarkeria eta fanatismoa ekiditeko egin den apustua.

Aldi berean, Astigarragako PSE-EEK (PSOE) uste du garrantzitsua dela Donostiarako egin den kulturaren Europako hiriburua izateko proposamena bereziki gipuzkoar guztien proiektua izatea eta oro har euskaldun guztiena.

Hiriburua Gipuzkoako gainerako udalerriekin –bereziki Astigarragarekin– lotzen duten lotura historikoek, sozialek, ekonomikoek eta noski, kulturek –horien artean euskararen sustapenak funtsezko zeregina du- eragiten dute lankidetzan oinarritutako proposamen honek dudarik gabe garrantzi eta erakargarritasun handiagoa izatea. Lurraldeko gainerako hirien aukerekin aberastu egiten dira Donostiak kulturaren Europako hiriburua izateko hautagai gisa dituen bistako gaitasunak eta eztabaidaiezinezko balioak.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Sozialistak honako MOZIO hau aurkeztu du, ondoren honako erabaki hau hartzeko

### europaea de la cultura 2.016

“San Sebastián y la ciudadanía donostiarra han puesto en marcha un ambicioso reto con la vista puesta en 2.016 y aspiran a conseguir la Capitalidad Europea de la Cultura para ese año.

El PSE-EE (PSOE) de Astigarraga considera que esta candidatura está suficiente y firmemente sustanciada en la demostrada tradición cultural, mentalidad europeísta y capacidad organizativa, de Donostía y, por ello, considera que su designación ha de ser un magnífico escaparate para mostrar a Europa su historia, su desarrollo y su vida cultural, así como su apuesta para educar desde la cultura y la tolerancia para combatir la violencia y el fanatismo.

Al mismo tiempo, el PSE-EE (PSOE) de Astigarraga cree importante que la propuesta de Capitalidad Europea de la Cultura para San Sebastián sea un proyecto de todos los guipuzcoanos en especial, y de todos los vascos en general.

Los lazos históricos, sociales, económicos y, por supuesto, culturales – de entre los cuales la potenciación del Euskera juega un papel esencial-, que unen a la capital con el resto de municipios de Gipuzkoa- y especialmente con Astigarraga-, hacen que una propuesta elaborada desde colaboración mutua esté provista, indudablemente, de una mayor y más atractiva envergadura. Las evidentes capacidades y los indiscutibles valores que posee Donostia como aspirante a Capital Europea de la Cultura no hacen más que enriquecerse con las posibilidades que le suman las ciudades del resto del territorio.

Por todo ello, el Grupo Municipal Socialista presenta la siguiente MOCION para que se adopte el siguiente



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### ERABAKIA

1. Astigarragak eta bertako Udalak 2016. urterako kulturaren Europako hiriburua titulua lortzeko Donostiaren hautagaitzaren alde egitea irmoki eta lankidetzaz-espirituarekin, Donostiaren kultura-tradizioak, bokazio europeistak, antolaketa-gaitasunak eta irekitasunak izendapen horren hartzaille duina bihurtzen dutelakoan. Bestalde, izendapen horrek ahalbidetuko du Donostiaren nazioarteko onarpena indartzea eta balioko du Gipuzkoa dinamiko, moderno eta interes handiko eskaintza kultural eta turistikoaz beterikoaren aurkezpen-gutuna izateko.
2. Astigarragak, Donostia inguruko udalerria denez, une honetatik aurrera hautagaitza-proiektu horri udalerririk dituen zerbitzu eta baliabide guztiak gehitu nahi dizkio kultura-azpiegiturei nahiz bestelakoei dagokienez; proiektu bereziak, hala nola, Sagardoaren Museoa – SAGARDOETXEA edo Ingurumen Eskola – Santiagomendiko Aterpetxea, nahiz turismo-intereseko monumentuak, esate baterako, Jasokundeko Andre Mariaren parrokia, Murgia jauregia, Santiagomendiko baseliza. Horrela, hiriburua izateko proiektua astigarragatar guztiak onartu eta partekatuko dute lankidetzaz-espiritu zabalago baten barruan, ideia hori heda dadin eta gipuzkoar guztiak eta inguruko herrietako bizilagunak ideia horren partaide egin daitezzen.
3. Era berean, Astigarragako Udalak adierazi du prest dagoela berez ekitaldi garrantzitsuak diren (ez soilik Euskal Autonomia Erkidegoan) herriko adierazpen artistiko eta kulturalak proiektuari atxikitzeko, esate baterako, urte osoan zehar

### ACUERDO

1. Que Astigarraga y su Ayuntamiento apoya, firmemente y con espíritu de colaboración, la candidatura donostiarra al título de Capital Europea de la Cultura 2016, en la confianza de que su tradición cultural, vocación europeísta, capacidad organizativa y aperturismo, la hacen digna acreedora de este nombramiento que le permitirá aumentar su reconocimiento internacional y servir de carta de presentación de una Gipuzkoa dinámica, moderna y llena de ofertas culturales y turísticas de gran interés.
2. Que, en aras a este objetivo, Astigarraga quiere sumar a partir de este momento, a este proyecto de candidatura y desde su situación de municipio vecino, todos los servicios y recursos con que cuenta nuestro pueblo, tanto en materia de infraestructuras culturales como de otra índole; proyectos singulares como el Museo de la Sidra – SAGARDOETXEA o de la Escuela Medioambiental – Albergue de Santiagomendi, así como sus monumentos de interés turístico tales como la Parroquia de Santa María de la Asunción, el Palacio de Murgia, la Ermita de Santiagomendi, de modo que el proyecto de Capitalidad pueda ser asumido y compartido también por todos los astigarrataras, dentro de un espíritu más amplio de colaboración que expanda la idea y haga partícipe de la misma al conjunto de los guipuzcoanos así como a los vecinos de las localidades más próximas.
3. Asimismo, el Ayuntamiento de Astigarraga muestra su disposición a adherir al proyecto, aquellas manifestaciones artísticas y culturales del Pueblo que suponen, en sí mismas, citas de contrastado



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

sagardoaren inguruan antolatzen diren festa guztiak.

reconocimiento no sólo en el ámbito de la CC.AA del País Vasco como pueden ser todas las fiestas que en torno a la Sidra se organizan a lo largo del año.

Astigarragako udalak aintzat hartzen dituen eskaintza hauek guztiak izendapen-eskabideari erakargarritasuna gehituko diote azkenik, 2016. urtea Donostiako eta Gipuzkoako kultura Europari erakusteko lorbidea izan dadin."

Todas estas ofertas que el Ayuntamiento de Astigarraga considera contribuirán a sumar atractivos a la solicitud de designación de modo que, finalmente, 2.016 sea el trampolín desde el que Donostia y Gipuzkoa muestren su cultura a Europa".

Proposamena bozkatu egin da eta aho batez onartu da. Alkate andreak adierazi du sustatu behar diren programak aurrera eramateko herritarren parte-hartzea eskatuko dela.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad, señalando la Alcaldesa que se solicitará la colaboración ciudadana en la ejecución de los programas que se deban impulsar.

### **7. Informazioa, galdera-erreguak**

PSE-EEko zinegotziak hitza hartu du eta alkatea ahalik eta azkarren sendatzeko nahia adierazi du. Bestalde, Ikerketa Batzordeari buruz adierazi du hitzaldia oraindik ez duela Batzordera igorri, baina azkar egingo duela eta azkenik alkate andreari honako galdera hauek egin dizkio:

7.1.- Zein egoeratan dago Legealdi Plana?

7.2 - Alkateak Udal Arautegi propioa sustatzeko eta Plangintzaren Aholku Batzordea deitzeko ideia azaldu zuen, nola daude gai horiek?

7.3 Udalhitz hitzarmena: noiz erabakiko da?

7.4 Carlos de la Peñak Sagardoetxerako bisita gidatuak kobratzeari buruz galdetu du.

7.5 Carlos de la Peña zinegotziak

### **7. Información, ruegos y preguntas**

Interviene el concejal de PSE-EE quien desea transmitir el deseo de la pronta recuperación del Alcalde manifiesta además que en relación a la Comisión de Investigación todavía no ha remitido su ponencia a la Comisión pero la aportará en breve y que formula las siguientes preguntas a la Alcaldesa:

7.1.- ¿En qué situación está el Plan de Legislatura?

7.2 - El Alcalde manifestó su idea de impulsar un Reglamento Orgánico propio así como convocar al Consejo Asesor de Planeamiento, cómo van estos temas?

7.3 ¿Convenio Udalhitz: cuando se resolverá?

7.4 Carlos de la Peña formula pregunta en relación al cobro de las visitas guiada al Sagardoetxea.





## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzaitza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

idazki bat irakurri du eta bertan honako hauei buruzko aipamena egin du: Ikerketa Batzordeari dagozkion hainbat alderdi, EB-Bren egoera oposizioan, erakundeen paralisia, Udalbatza honetako zenbait langilek pairatzen ari diren isolamendua, jazarpena eta hondoratzea, eta abar. Idatziak honela dio:

“EB-Berdeak Talde Politikoko zinegotzi eta bozeramaile naizen aldetik, ezinbestean mahaigaineratu behar ditut garrantzi handiko hainbat gai, izan ere, udalean eragina izateaz gain, etxean dauden langile ugari ere eraginpean hartzen baitituzte.

Lehenik eta behin, eta PP alderdiko ordezkariak aurkeztutako Boto Partikularraren aurkezpenari buruz hitz egin nahi nuke; ordezkari horri eskerrak eman nahi dizkiot bere lana egiteagatik, urtarrilaren 9an egin zuen azalpenarekin ados edo azalpen horren aurka ote nagoen alde batera utzita.

Horri dagokionez, ordezkari gisa, honako hau da nire asmoa: erregistroaren bitartez alegazio edo komentario horiek (ez dakit halakotzat har daitezkeen) ahalik eta lasterren aurkeztea, osoko bilkura bidez eztabaida daitezen, horrelako gaietan ohikoa den bezala.

Horretaz gain, derrigorrean salatu behar ditut alderdi sozialistako ordezkariak eta Ogasun Batzordeko lehendakariak duela gutxi prentsan egindako adierazpenak, horien arabera, oposizioak (gaur egun EB-Berdeak alderdia dago oposizioan) estatuko toki-funtsaren proiektuetarako ez baitu, antza, lanik egin. Guztiok dakigunez, ni, Carlos de la Peña udalkidea, eriondo nago, eta erantzukizun-irizpide bati jarraiki, nire

7.5 El concejal Carlos de la Peña da lectura a un escrito reseñando distintos aspectos relativos a la Comisión de Investigación, situación de EB-B en la oposición, parálisis institucional, aislamiento, acoso y derribo de algunos trabajadores en esta Corporación, y que se concreta en:

“Como Concejal y como Portavoz del Grupo Político de E.B.-Berdeak, no puedo dejar de poner sobre la mesa diferentes cuestiones que son de gran importancia y que no sólo afectan al municipio sino a muchos de los trabajadores que se encuentran en la casa.

En primer lugar y por referirme a la presentación del Voto Particular presentado por el representante de PP, al cual tengo que agradecer haberse tomado la molestia de cumplir con su trabajo, este o no en desacuerdo o conforme con las conclusiones que ha presentado en su exposición del día 9 de enero.

En este sentido es intención por parte de este representante el presentar, no se si se pueden denominar alegaciones o comentarios via registro, en el plazo más breve posible, para que se sometan a debate vía plenario como suele ser habitual con este tipo de cuestiones.

Así mismo, no puedo dejar de denunciar las declaraciones recientemente realizadas, en prensa, tanto por el representante del partido socialista, como por el presidente de la Comisión de Hacienda, al declarar que la oposición espacio que ocupa en estos momentos E.B.-Berdeak, no han trabajado de cara a los proyectos del fondo local estatal. Este corporativo,



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

egoerak ahalbidetzen didan heinean lan egin dut eta bertaratu naiz udalbatzara, horretarako eskumena duten organoen bitartez horretarako egokiak diren ekarpenak egiteko.

Aitzitik, nik, zinegotzi naizen aldetik, alkateak izandako ezbeharra dela-eta egun dugun parálisi instituzionaleko egoera salatu behar dut; bestalde, alkatea ahalik eta lasterren susper dadin espero dut, eta erabateko laguntasuna eskaintzen diot, berari zein bere familiari, orain jasaten ari diren egoeragatik. Parálisi instituzionaleko egoera hori agerian geratu da azken hilean egindako batzarretan, izan ere, estatuko toki-funtsak eskuratu ahal izateko epeak betetzea izan baita batzar horiek egiteko arrazoi bakarra (beti bezala, gaizki eta azken orduan bete dira epe horiek).

Bestalde, oraindik langileen negoziatioari osoko bilkuran heldu ez izana ere ez da ohikoa, arazoei beste mota bateko gaiak eraginpean hartzen dituztenean, esate baterako, hirigintzarekin zerikusia dutenak, prozedurak bizkortu egin ohi baitira, eta ahalegin handiak egin ohi baitira epeak bete ahal izateko, makineria martxan jarri; legealdi honetan bizitako adibideak, ostera, bestelakoak izan dira.

Bere garaian, taldearen kide nintzenez, Alkateak esan zidana gogoratuz eta parafraseatuz, "zu ez bazaude ere, Udala ez da geldituko" eta egoera horretantxe gaude gaur egun; horretaz gain, kasu honetan ez ezik, beste hainbat aldiz ere gertatu izan da hori. Jaun-andreok, herriak ez gaitu itxarongo, eta ezta langileek ere, eta gutako inor ez da ezinbestekoa.

Carlos de la Peña, encontrándose convaleciente, como todos sabemos y por un criterio de responsabilidad, ha venido trabajando dentro de lo que las circunstancias le permiten y desplazándose a la corporación para a través de los órganos competentes al efecto realizar las aportaciones oportunas al efecto.

Sino más bien este concejal tiene que denunciar la situación de parálisis institucional en la que nos encontramos ante la desgracia sufrida por el Alcalde, y que espero su pronta recuperación, manifestando mi total apoyo tanto a él como a la familia, por el momento que se encuentra pasando. Esta situación de parálisis institucional, se puede observar ante las comisiones desarrolladas este último mes que vienen debidas única y exclusivamente por el cumplimiento de los plazos para poder acceder al fondo local estatal y que como siempre mal y a última hora.

Tampoco resulta de rigor que siga sin subir a pleno la negociación de los trabajadores, porque cuando los temas afectan a otro tipo de cuestiones, como las de carácter urbanístico, se agilizan los procedimientos y se hace lo inimaginable para cumplir los plazos poniendo la maquinaria en marcha, y son distintos los ejemplos vividos esta misma legislatura.

Por parafrasear y hacer referencia a lo que me dijo el Alcalde en su día, cuando era miembro en el equipo, por el hecho de que tu no esté son se para el Ayuntamiento, y es la situación en la que nos encontramos en estos momentos y que no sólo se ha dado en este caso sino que también en otros momentos. Señores el pueblo no espera y los trabajadores tampoco, al mismo tiempo que nadie somos



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzaitza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Era berean, udalbatza honetako hainbat langile jasaten ari diren egoera ere mahaigaineratu behar dut: egungo gobernu-taldean dauden politikari askoren onespén eta babesarekin beren interesak (lanekoak zein politikoak) beste edozeren aurretik ipiniz egoera pribilegiatuz baliatzen direnen ildo berari ez jarraitzeagatik, langile horiek bazterketa ari dira pairatzen, eta jazarri eta suntsitu nahi dituzte, egiten duten lana beren ekimenetan oinarrituta egon beharrean, subjektu horien mende baitago erabat.

Azkenik, ez nuke amaitu nahi udalkide naizen aldetik gaur egunean bizi dudán egoera aipatu gabe, gobernuko kide ohiek, gaur egun daukaten lanpostua haiei zor dieten pertsonen babesean, etengabe jartzen baitzikidate oztopoak. Nekeak jota gera nadin eta etxe hau utz dezadan lortzeko bide ugari ari dira erabiltzen, nik, Carlos de la Peña udalkideak politikan egindako lana gogaikarria iruditzen baitzaie, eta gobernu-taldean nengoenean ere hori egiten saiatu ziren, erabateko desleialtasunarekin.”

Alkate andreak adierazi du egindako galderak kontuan hartu direla eta dagokienean erantzungo direla.

7.5 puntuán jasotzen den Carlos de la Peñaren idazkiari dagokionez, EAko zinegotzi Imanol Lizarralde hitza hartu du eta esan du hor azaltzen diren akusazioak jasanezinak direla eta beti bezala, oinarririk gabekoak, bere EGOari eta demagogiari dagozkionak ohi bezala.

imprescindibles.

También tengo que poner sobre la mesa, la situación que se encuentran viviendo algunos trabajadores en esta corporación, de aislamiento y acoso y derribo de sus personas, por no encontrarse en la cuerda de aquellos, que de forma totalmente interesada y anteponiendo sus intereses, ya sean laborales o de carácter político hacen uso de situaciones privilegiadas, con el amparo y beneplácito de gran parte de los políticos que forman parte del actual equipo de Gobierno, como consecuencia de que su trabajo no se fundamenta en sus propias iniciativas sino que es totalmente dependiente de estos sujetos.

Por último, no puedo dejar de hacer mención, la situación que este corporativo se encuentra viviendo, con las continuas zancadillas, que por parte de sus exsocios de gobierno se le vienen poniendo, amparándose para en aquellos a quien deben su trabajo. Siendo muchas las vías que se están empleando para ver si este concejal cae en el agotamiento y abandona la casa, porque les resulta incomodo ante la labor política desarrollada por este Corporativo, Carlos de la Peña, y que cuando se encontraba en equipo de gobierno también se intentó practicar, con una deslealtad total”.

La Alcaldesa señala que se toma nota de las preguntas formuladas y que se contestarán en su momento. En relación al escrito de Carlos de la Peña recogido en el punto 7.5 interviene el concejal de EA Imanol Lizarralde señalando que son acusaciones insostenibles que realiza como siempre sin fundamentar ninguna acusación y



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Jarraian, alkate andreak adierazi du lkerketa Batzordearekin lotutako gaiak zuzenean Batzordean kudeatuko direla eta Bozeramaileen Batzordera aurkezten dieten galderarekin amaituko dela.

Azkenik, idazkari-kontuhartzaileak zinegotzien bertaratzeak ordaintzeko prozeduraren berri eman du. Prozedura hori behar bezala egikaritzeko atzeman diren arazoak zehaztu ditu eta azaldu duenez, zinegotzien batzordeetarako bertaratzeak Idazkaritzak egiaztatu ondoren batzorde-idazkari bakoitzak jakinarazi egin beharko ditu eta ordezkari espezifikoak, baldin badaude, egiaztatu. Hori egin ondoren, ordainketak likidatuko dira hilean behin eta haien laburpen-kopia bat sartuko zaio zinegotzi bakoitzari bere postontzian. Akatsik atzematen bada, akatsa atzemanden batzordeko idazkariari jakinarazi beharko zaio.

se corresponden con su propia EGO y demagogia que nos tiene acostumbrados.

A continuación la Alcaldesa reseña que los temas vinculados con la Comisión de Investigación se gestionarán directamente en la propia Comisión, y se concluirá con la cuestión que formulen a la Junta de Portavoces.

Finalmente el Secretario-Interventor reseña el procedimiento que se sigue en el abono de las asistencias de concejales. Detalla los problemas detectados en su correcta ejecución y señala que mensualmente una vez acreditadas ante Secretaria la asistencia de los concejales a la Comisiones y que deberá comunicar cada secretaria de Comisión verificando en su caso las delegaciones específicas si las hubiera se procederá a liquidar los pagos de cuya copia resumen se aportará a cada concejal en su buzón. Caso de advertir algún error deberá transmitirlo a la secretaria de comisión en la que se detecta el error.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2009ko urtarrilaren 29an

**Xabier Olaizola Lasa** Astigarragako Udala  
Idazkari kontu-hartzailea IDAZKARITZA SAILA

